# ERRI ARNASA



SOLOZABAL'TAR PAULIN

SOLOZABAL'TAR PAULIN

# *"ERRI ARNASA"*

BEAR DIRAN BAIMENAKAZ

I. S. B. N.: 84-400- 2.S20-2

Depósito legal: BI 1.192 - 1977

GRAFICAS BILBAO, S. A.

B.° San Miguel — Amorebieta (Vizcaya)

# AURRITZA

Nor nairi, gaur eta beti, atsegin yako barren-ateak edegitea. Guk, barriz geure izatearen ondoa era askotara agirian ipiñi daikegu: idazleak idatziz, nunbait, daia itz askatuz daia bertso borobillez. Aurritz onetan bertsozko azaltzeari gagokioz batez be.

Baiña ... gaur be, bertsotan? norbaitek itanduko, arp[illegible] lili-garai, izotz-aro baiño. Maitakeriari edegi gaur ateak, gogorkeri, diru, gorroto, urduritasun eta olakoai; joana dozu ezpirituzko balioen sasoia. Gizonari so gaur izadi erdian jainko. Betor jolasa, nagusitza, zapalketa, bizinasia... Gorets, aldarrika, gaikeri edo materialismuaren balioak.

Alan be, ba-dira oindiño, ezpirituzko bolioz lilluraturik, gaiari —gorputzari— baiño begirada samurragoa barne-arnasari —arimeari— dagitsenak. Munduan bizi izateko bakarrik ez da gizona; idiak goidaketan lez, gizonak lan egin bear dau munduan. Egia da. Baiña lan orrekin *bere* arnasa ezarri bear dautso munduari. Bedi gi-

zona langille —«faber»— eta jakitun —«sapiens»—. Esku ta buru, gorputz eta arima. Orrela jokatuaz izango da bakar-bakarrik munduko errege.

Langille da olerkaria; ez baiña abere bezela, azke ta zentzunez lan dagi munduari begira, mundua adoretu nairik. Gaur askok triste ta its ikusi daroa lur gaiñean dan gizona; baltz eta ekaizti dakusgu bere giro ta ingurua. Egiz orrela etc da? Ba leiteke. Guk, orraitiño, idazleok, orrela izan ez dedin, mundua obetu ta ataitzen saiatu bearra dogu.

Gizasemea gaur iñok eroana da, berak nai ezdauan tokirantza sarritan: ospe ta omenak, batu-banatuak darabil, aizeak ego-gain daroan orbela iduri. Nun jausiko? Edozein karkabatan, ziur asko. Cero ta geiago, zoritxar aundiz, iñoren atsegin, irabazi ta ardurak dauko sare arte. Gaixoa! Kontsumo-gizarte barruan, usakumea kaiolan lez. Nun onakoaren askatasuna? Nun zentzunez eta errazoiz jokatzea?

Orrez gain gaur itz au darabitgu eten barik miñaren gaiñean: kultura. Zer da kultura? Giza-osatzea. Gizonak, zer guztietan —gorputz eta arima— osotasunera jo bear dau; ez gorputzez bakarrik gero, arimaz be bai; kultura bear dau gizonak, ez zatika, oso-osorik baiño. Adimenez ta ekiñez —teoriz eta praktikaz— jantzi bearra dau. Bizi izateko bearrezko dan langintza, ogibide, bizimotde, irabazpide ta olako sailletan, mundua obetzeko bear bada, Marx eta onen jarraitleak nai dabenez? Ez da naikoa. Gizonak adimen eta naimenez, buru ta biotzez, jantzi bearra dau. Gizonak ona izan bear dau ekandu ta moral-arloan be; kultura bear dau ortan be. Ez da makiña edo abere soilki. Errazoiduna da, ta oni dagokiona emon bear yako, izate osoz ornidua izan nai ba'dau. Orrek uts-egin ezkero, errenka bait doa.

Oierkariak, idazleak, jakintsuak ideiak zabaidu bear dabez errian, irakurleen artean, Errien gorabera guztia ideiak darabilie geien bat; ideiak dagie edestia, istoria, eta edestia gizonakr Gizasemeak, beraz ondo azi bear dira, buruak jakintzaz ornidu, biotzak egi osoz amastu.

Esku artean dozun olerki tiburu onen egiiieak, Solozabal'dar Paulin'ek, bere eiburua izan dau bertso oneik ondu ta idaztean. Barrua, apiz-barrua utsitu dausku poesi-lan txanbelin oneitan: oierkari aspergatxa dogu iñondik iñora, ieendik be bost olerki-iiburu argitaratuak daukaz eta; ezaguna da nunbait euskal eiertian. Jomuga bat bera izan dau zalantza barik barnea koplatan adierztera saka egin dautsana; ez barrena erakutsi naia, ain zuzen; erria izan dau hegi aurrean, erria eskoiatu, erriari zer egin eta nundik jokatu erakutsi, Euskalerriari ibilbidean argi-izpi dirdaitsuak, zuzen-izpi antzera, arrotuazo, galdu ez daiten, urrats-ziur bide egin dagian.

Tituiu lez «Erri-arnasa» daroa idaztiak; berton datozan olerki luze ta motzak, bada, ez dabe azatpen bearrik. Erria goretsi, gure erria, euskal erria, bere nekazalgoan eta industri-lanetan. Nekazaritza aurrenen, industri lana gero. Artzaintza ta nekazaritzatik bizia dogu eusklduna gizaldi zerrenda etengabean; gerozkoan be, emen dauko lur-zati lilluragarria, lan egin ezkero guna ta jana atarako dautsana. Baserri ta fabrik.a, or aurrerantzean be euskaidunaren bizi-molde aukerakoa. Biak egoki buztartuta, biak baititu bere-bereak : gogora aintxiñako olazarrak, eta inguruko langintzak.

Baserrian jaioa da Solozabai, gaur industriz oparotsua dan Mungia'n bizi dan arren. Zain ta muin ezagutzen ditu

euskaldun jatorraren ixurki ta gainbarru biak. Izadia ta lana orixegaitik aitatzen dauskuz ain sarri. Garai ontan poesi soziala ontzen saiatu dira geien bat gure poeta gazteak batez be; garaian garaikoak ondo emoten. Paulin'en neurtitzetatík asko be sait orretan lerrokatu daikezuzanak dira.

Apaiz gisa ez dautso erriari sozial aldez bakarrik begiratu: euskal erri osoa, bere nortasun osoarekin —lur, lege, ekandu, erlejiño, jolas, musika— goratzen dausku. Gatz eta piper-pikorrez gain-zurituriko olerkiok, beraz, ba-dabe garrantzirik euskalduna jantzi ta eskolatzeko. Ez dira sasi-soiñeko, estatki atsegingarri baiño.

Ezta illuna, betosko baltz orreitakoa. Euskatduna izan oi danez, Solozabal beti dogu baikor, buru-zut aurrera begiratzen dakiana. Ez yako eder garraztasuna, gaurko zenbait idazleri darion negar itsa. Garratzaren edena berez jagi-azoko; guk ez daigun ortarako biderik emon. Idazleak gozo ta ezti bear dau, irakurlearen berrenari arnas baikorra sar-azteko.

Eder aldetik len, Paulin, labur eta zeatz genduan; oraingoan, barriz, luze samar datorkigu azalez, zortziko biribilletan sarri; mamiñez, esan dogu, errizale ta goitiar. Izadia ta gizona alkartu nai izan dauz, txiletar olerkari aundi Pablo Neruda'ren gogo-miña ere zanez. Aren egarriz ezta gizona bakarrik poesiak barren emon bear dauana, baita izadia be beronen indar ezkutu guztiakin. Giza-alizateak eta kosmosen misteri aundia aurrez aurre jarri bear dauz olerkariak,

Orretan dendatua dogu Solozabal. Irakur egizu beronen lana, artez eta yoranez egiña, ta baiezko onen egia zuk zeurez gazi-gazan ikusiko dozu.

Larrea 1976-IX-29'an
*Aita Onaindia*

# URRUTIA'TAR MARTIN JAUNARI
# ARRATZU'KO SEME

Martin, zer duk ire barne ortan?
Zer eman ditek ait-amak?
Ire gorputzaren gerizpean
ze ezkutuzko indar daramak?

Aitaren eta amaren odola
gorri errízko al uan?
Aien beiarri ta eztarriak
zer zien eren barruan?

Aitaren ta amaren atzamarrak
argizaria al ituan?
ala ertizko jakituria
ote zien erivan?

Doizko Martin, zEr duk ire baitan. .
Ertiaren adu indarark
menperatu al dik izatea...?
Oro ertiz, baita ezturrak.

Ire begiak, belarri $_{a}$ soin,
arnas otsa, atzamarrak,
oro aidean zebilkitcan
barruko erti dardarak.

Entzun garrez iruk an gizonak,
ederra bera artu
baina ire barrua eeierrago
erri eztia ixuririk_

Abots ta soiñua, soka m, izkoa,
goxo botatzen aizera,
ta erleak eztia bezela
gizonak entzun pozera.

Asetu nairik ezin asetu...
Zer duk or, ederragoa...
odola, mintza, erti ixurketa...
ala ire zain ta gogoa

Euskaierriak berez, bizi dik
soñua ta oierkia,
zelai ta mendietan txoria
pozaren abeslaria.

Baina ire txistu ta tanboliñak
ostu didatek barrena,
argia, sua, indarra uriolka
dixurik, gogo oberena.

Ederra maitagaria zaidak,
erti ori zoramena,
ianez garra atera egiok,
birioratu entzumena.

Ardau garra dixurik notetan.
Txistuak ta ire barruak
zer zebilkitek bien artean
maitez bezela minduak...?

# MENDI GAINEAN

Euskalerriko aritz artean
zakusdaz ernai Laukariz,
Bizkai'ko iurrean erroturik
mendi ur garden ugariz.

Eieiza mendi gain tontorrean,
ixii, zugatz inguruan,
munduko itzaipe gorri artean
giza nekeen ziburuan.

Lcrdoiak lerdoi dakusdaz iiiun
zelaiak orlegiago,
orteitik datorkit poztasuna
enegana sarkorrago.

Udabarria jaio barri da
Eteiz aldeko izadian,
zu g atzak eta 2elaiak dagoz
irri-barre bigunian.

Eguzki gorrik ez dau oraindik
goritasunezko odolik,
an, urrin, odei artean dabil
lurra jo gabe zintzitik.

Oa, Mozu, eztiki dagiotso
berezko gozotasunez,
lur otz ta baltz naigabetuari
goizeko argitasunez.

Egun guztietan dabilkio
indar barriak ezarten,
izadia maitekiro dago
eguzki bizia artuten.

Beroa, bizia ta indarra
neguko neke ostean
datoz lurra arnas barritutera
argi izpi barri artean.

Lur astunak maite dau beroa,
erraiak zabaltzen ditu,
antziz, bizi barri baten billa,
emaro bizi eztitu.

Zugatz enborrak, adar betiak,
bizia guritzen dager,
erne-miñetan ondotik goira
bizi jaubeari esker.

Biziaren maite miña dator
puntarik punta ioretan,
zuri zuri, usain jariotan
jaiotzaren amesetan.

Eta nik ames egin dot
indar barrien aurrean,
oro da niretzat ezkutua
biziaren barrenean.

Ertitaria ez dot ikusten
ikusmen labur onegaz,
biziaren barruan ba-dabil
bere jakintza utsagaz.

Egillea sorpen indarragaz
lur erraietan bezela
lora barri eztietan dabii
        sortzen eginala.

jakituria ta maitasuna
negurtu gabe dabiltzan
gizonen almen urri gaiñetik
Jaungoikozko egi utsaz.

Izadi oparo orreri artean
mendian eliza dago,
bakarrik, orma-zar inguruan
lurra baiño maireago.

Antxe, dago Jainko betikoa
umientzat gaztetxoa
gaztcentzat indar dan gaztea
nausientzat itxaron.

Burdin kanpaiak dabiitzaz
deika pozezko jaietan,
burdin kanpaiak negar zarataz
eriotzako orduetan.

Jendea gora ta gora doa
lurraren bide zarretik,
millinoiak bider zapaldua
sinismenak diñon ezik,

Lurrean tínko dago bidea
kristau jendea argiago,
URTZI asabak maitatukoa
Bazelizatxoan dago.

Kanpaiak soiñu. beti, ez bardin.
Arin, geldi, minkaitz, pozez,
giza bizitzari dagokion
eran ari erantzunez.

Jaiotzan, igandez¸ San Roketan,
pozezko burrundadea,
mendi ta relaiak artu ala
soiñuen egazkadea.

Sinismenaren argiari dei
egiten deutso kanpaiak,
biotz barneko maitasun garra
berotzeko su goriak.

Semetasunaren jakituriz
doaz ilkerrak aitana,
ii cndi gaineko Baselizara,
an, dago-i a, berez, dana

Illeakcrtasuna, berez, danak
bizitzaz ilkor direnak,
gogozko janariz ezitkortu
nai ditu sinismendunak.

Nekeak neke artu ondoren,
jaiari begira dagoz,
jainko Beraren maitasunean
murgiltzeko seme gogoz.

Bearra, Nekea, Sinismena.
Urre mieza bezela
elkartu dira erri bidean
alkar maitatzen dabela.

Biziaren zustrai onak dira.
Egia eurengan dabe.
Gizonaren barrena zuzenduz
Kristo opariaren menpe.

Astearen elburu zuria
maitasun bi onenekin
koroitu nai dabe batzarrean
Aita Jaungoikoarekin.

Izadia oso eder dago,
gizadia ederrago,
gizona, men men, doa Jaunagana
lorak baiño apalago.

Sinismena. Maitasuna eta
barruko damutasuna
agertu dautsez Jaunari gogoz,
egiz, dan gizontasuna.

Munduko lotsakizunik ez dau,
norbere ezereztasuna,
garaiz, ikusten daben gizonak
zentzundunen osasuna,

Bear, neke, sinismena, garaiz,
alkartu dira mendian,
bizia osorik eskeintzeko
Egiltearen aurrian.

Txikiak, geienen, apai dira,
bearraren doi bakana.
Apalak dau egizko argia
zuzentasun bide ona.

Lana ta sinismena alkartuta.
Egi santua, or, dago.
Nekeak sari bi bear ditu,
gaur bat, gero aundiago.

Aundizkiak aurrez aurre dabiltz
erri barria sortuten,
munduko atsedenaren billa
lur aukerak eratutera

Erri bi, laster, izango dira
alkarri, eup, otska ete...?
Langille sinismenduna bata
dirudun jantxoa beste.

Diru larri ikaragarri orrek
lurra dardaratu dabe,
iñoren izerdiz ez ba'dira
gizonarentzat asko obe.

Lur eta lanaren laztasuna
pobreak ditu janari;
diru?ko aukeramenak barriz
aundizkiarentzat sari.

Eik dira anai, biak ez-bardin.
Munduko arrokeriak
ez d be lurrez zuzen epairik.
Ntgai. Ta parre soroak.

Guztiak gaiñetan bizi dira.
Beartsuak tan izerdiz.
Aundizkiak aitz-jauregietan
eguzkiz ta urre dizdiz.

# KEZKAZ

Oddoztu ta oidoztu ari naz.
Artega daukat bizitza.
Barruko kezka negargarriak
lertu nai dauste biotza.

Bakardadean bakarrik nago
azkengabeko egarriz,
bizi muiña, nun, dagon jakin nai
barne-muiñak bultzaraziz.

Aztertu ta aztertu ibiii nabii.
Itxasoa dirudio
uretan ertz bage murgildurik
nere barruko jario.

Bizia. Sortzea. Jaungoikoa.
Oidozpen sakonak deika.
Inguru ontan, beti, iur otza
biziari makillaka.

Burrukan jabiltzkit ezkutuan,
eten gabeko gudetan,
aragi, buru ta maitasuna
oiñaztarri dardaretan.

Egun barriak, gogorki, diraust:
adiña, zorroztu artzak,
lur otzean eta izar artean
aurkitzeko bizi giltzak.

Lurra, itsumustuan, zabittz aidez.
Zintzotasunez esaidazu:
biziaren arrias emoillea
Jaungoiko bera al zara zu?

Nire bizia astun dago ta alper.
Ezer ez dot oidoztuten.
Nire biotza lur utsa da-ta,
ez naz Jainko autortuten.

Itxaso zabai eta indartsua,
zure menpe dozu sarri,
gizon bizia. Jainkoa al zara
bizitz jabe arrigarri?

Ni ur itsua naz, biotzgea.
Marrazoak eta indar baltza
dabiltz gizonak irunsten nigan.
Nik ez dot Jainko bizitza.

Izar dirdaitsuak, zuen argiz
poztuten dozue lurrar..
zuek al zaree Jainko Altsua
guri kentzeko negarra?

Sua dariogu itsu itsuan,
guregana datorrena,
kiskalduta isten dogu garragaz.
Au da Jainkoarena.

Aide biurrizko oñaztarriak,
bildurrez nator dardari,
zuek ete zareen Jaungoikoa
zeru zear ibiltari...

Izadiko gauz eta gizonak,
gure lndar maltzur azpian,
sarri, il dogu bizia iurrean,
ez gara Jainko aidian.

Egun sentiko izotzaren dizdiz,
zuri, eguzki printzetan
gizonari eskeintzen deutsazu
Jaínko irudia goizetan.

Bizitz laburra dot dubakoa.
Ume ta lore garbiak
erre-mintzen ditut ankerkeriz.
Au ez dau nai Jaungoikoak.

Mendietako arkaitz itzalak,
lurreko erraidoi zaree,
alan bai ete da Taungoikozko
zuen izatea ere?

Neguan otz dago gure goian,
magai malker ta ilkorrak
ditugu gure ikuslarientzat.
Ez. Jainko ez. Arri indarrak.

Medierako lora politak,
izadiko erregiñak_
Jainko izatea ere- daroa
zuen orri eta usrtíñak?

Gure edertasun a rrigarriak,
usaiñez lurrindar ^ak,
laster, bertan berma, iitera doaz;
zeian izango Jairiltoak! ! ! !

Mendi barruko ieza zuloak
zuen bitxiz eder bera
dirudizue. Zuek al zaree
Jainkoaren izakera?

Otzetan illun eta bakar gagoz,
mendi berak zapaiduta,
gu ez gara izadiaren Jainko
Egille, bera jaku-ta.

Iturrietako ur gardenak,
lurraren erraietatik
berezko bizia al dakarzue
Jaungoiko Berbera izanik.

Lurraren zirrikituetatik
gatoz bizia indartzera,
baiña itsuan gabiltz arar onat
gu Jaungoiko ez gara.

Aizeak burrundaka zabiltzez
lurra apurtu bearrean;
zuek al zaree Jaungoiko indarra,
dardaraz, gu bildurtzean.

Alde batetik bestera goaz
orroaka itsumustuan
etxe ta zugatz austen ditugu
ez gara Jainko munduan.

Bedarrak emeéminetan dagoz,
barneko indar bizi ori
Jainkotiar aia al da bultzaka
iur oparotasunari...

Ez daukagu ez aundikeririk.
Jaio. Edertu. Loratu.
Laster it bear berezko iegez;
la ai! apalki, auts biurtu.

Ota arantza mindunak, kezkaz,
zuen zitalkeriz lurra
menperatu nai dozuen Jainko
egin al da zuen garra?

Ez gara ezkutuzko indardunak.
Gizonak ditugu etsai.
Segaz bizia kentzen jatorkuz
baso harrenctik noznai.

Lur barruko urre,, zidar, burni,
noztik ona zaree Jainko...
gizon eskubideak indarrez
zuen naietara ilteko...?

Gu apal bizi gara lurpean
jaungoikotasunik gabe
gizon ankerrak doguz gurtzaiile
eta anaiak euren rnenpe.

Ezpatea, ao zital orrekaz
nork jarri zaitu Jainkotzat,
gizonen bizi mairegarria
noz artu eskubici etzat?

Ez zara zu iñun dik Jaungoikoa.
Ugcrrak jan bear- zaitu,
zuzentasunak az i iratuko
ta egiak lurperat

Maltzurkeria, guzurra, iraiña,
zertan zabiitzez lurrean...
jauntxo izatea nai al dozue
lotsa gabe gizadian...?

Egiak irurok guzurtauko
zaitue ikaraz austurik,
lur gaiñean ez da geratuko
zuen aztarren gaiztorik.

Biraoak, gizon koldarkeriak,
Jainkoa kendu nai ieuke,
berez bizi dana it gogo baltzez,
eurak geratzeko azk_.

Baiña biraularia egundo
ez da izango Jaungoikoa.
Buru, biotz, mm, auts biurturen
betirako lotsati.ta.

Zapaltzaillea, biotz ankerra.
Gizon jauntxoa izan nai dau.
Nungo Jainko zengikez zu...?
Zer da zapaltz agindu au?

Maitasun gabeko pizti zara.
Zer zabiltz bizia kentzen?
Zuzentzak zapuztu bear zaitu,
errugeak il baiño len.

Zer da itxasaldi amorratua! ! !
Zertan zabiltzez gorrotoz
gizon biziak iruntsi nairik
aize ta ureen naste asmoz?

Jauntxo, Jainkoa ez zara izango.
Egizko Jainkoa zanak,
baretuteko agindu eutsen
ta lotsaz, geidi, ur gardenak.

Gizona, zer eta nor zara zu...
Jaun zaraia al deritxazu?
Oro doa igertzcn. Oro igeska,
ta gizona arro txingartsu.

Eroa ete dirudin nago.
Ona itzi ta usteia mizkau,
zorakeriak amaituz geroz
Jaungoikoa ikusiko dau.

## OMEN ETAN
## O MRNEZ

Euskaterriko zeiaiari dabiL
Joiasak ditu gogoan.
Giza landara barri a gogoz
dator baserri giroan.

Mendi eta arruak dakus eder.
Soioak zabal zabalik.
Mendi barrenean iturria
aritz adarrak gordCrik.

Guztia ixilpean estalita.
Negua iliunpean lotan.
Arriak ots. Aizea zibuka.
Oñaztarria taiñotan.

Gizon bat ikusi dau, bakarrik.
Sega luze bat daroa.
Aldatzak gora malkarrik malkar
gizon pifiaren tajoa.

Nora ete doa segalari...?
Oinkoda sendoak gorantz,
bular auspoen indar bizitzan
doa ota-lar mendirantz.

Besakada zabaletan dabil,
Segakada gogorretan,
ota-lar etsaiak bera doaz
eriotz-min samiñetan.

Ota, larrak, lurrean etsaiak,
segalariak il ditu.
Gero, biziaren maitasunez
lubarriak oparotu.

Mutil koxkorra begira dago
segalari azkarrari,
baiña urrin, ikusten dau mendian
lurragaz burrukalari.

,Maitasuna. Nekea. Izerdia.
Mendiaren aldez oro.
Gizonak bere indarrez lantzen dau
euskal lurra maitekiro.

Lurrak geruago t'ederrago.
Garbi. Oparotasunez.
Etsaiak sabeletik kenduta
segeari eskar miñez.

Mutil txikia maite mindurik,
euskal mendi goira doa.
Gizon bakarra dakus ianean,
segalaria sendoa.

An, gainik gain dabilkio gogoa
aitzin gibel zabalera;
arranoak karraa mendietan
best ren odol ;onera.

Egazkada maltzurrak darabiz
nor ito ta zer iruntsi,
pizti ankerra, zerk eraginda
gura dozu bizia autsi?

Indartsua zala-ta ustez
lapur biurtu al zara?
oñaztarriak gaurko gabean
botako zaitu lurrera.

Edendun suge-tzarra, zer abii
enbor sendoari batuta,
zugatz zar sendoaren bizia
gaiztakeriz kendu **nai**-ta! ! ! !

Mendian jabilk gizana, gogor,
burdin sega zorrotr_agaz,
taster, burua ausiko deuk
bcsalcada indartsuaagaz.

Sasitza baltz eta gosetiak,
zer dala-ta zabiltzez
iñoren odola xurgatuaz
lur au ilten zoritxarrez?

Sua etorriko da zuen gain
arantz okerrak erretan,
zuen zustrai gaiztoak su-garrak
suzituko dauz gaur bertan,

Mirua. Au ere iapurtzarra da.
Gizon lapurreen antzeko.
Egaztiak ostu dauz zelaian
lapur gosea kentzeko.

Pizti ankerra, ireak egin jok.
Eiztariak mendian
ler autsez egoak ilko deuaz
bizia amaituz lurrian.

Tontorrak tontor izugarrizko.
Erri zar bat, ortxe, dago.
Odola, izkuntza, oitura zarrak
ezer baiño ederrago.

Miilak urteetan mendi artean
landuz bere gogo zarra,
erria otso arteen dago
arruetara begira.

Mutil gaztea erpin gainetik
adi ari da izuturik,
sasiak, iupoak, otso ta artzak
oro dago nastaturik.

Etxe ardiak eta bildotsak
matasa ortan gaiduta,
erriko zeiaian ezin dabe
jan otsoak astinduta.

Gizonaren ondamena. Baltza.
Atzerrietako otsoak
gose mendietatik jatsita
gure bedarrak ostuak.

Gizonak ezin euren izkuntzan
aita ta amari dei egin;
oteo arrak ez izten baketan
euren agin zorrotzekin.

jakitunak ezagutu daben
izkuntza ain arrigarria,
otsoa, lcoiak eta akerrak
gura odolustutia.

Baiña barruan dabe bizia
zelaiak eta iturriak,
maitasunik, iñoiz, ezin il iei
ez aker ta basurdeak.

Etxe teialenak izan ditu
babes toki maitet suak,
urietako jende ziritzoak
ta bascrrí aintzat suak.

Millak urteetan aritz artean
bendabal guztien aurka
jakiturizko etsai Zarrekin
jokatu dozu burruka.

Ta mutil gaztea gizondu da.
Argiz,zoli dauz begiak.
Otso, leoiak ikusi ditu
eta artaldeko ardiak.

Seme zintzoaren barne muiña
maitasun garretan datza;
biotz zauriz odol jariotan
eskeintzen deutso semetza.

Ama, zure bizia ilten dakust
semeen arduragekeriz
eta etsaizko czpatearen
amorruaren txarkeriz.

Nire bizia ta nire indarrak
zuri, beti, zor deutsudaz,
egunik egun, ordurik ordu,
gaur zuretzat damotsudaz.

Eskeintza ona seme zintzoak
amari egin eutsan a,
amagandik artuko bizia
onen aldez urratzea.

Amaren bitxiak ezagutzen
doa. Ez utsalezkoak.
Beregan ditun edertasunak
maitasunez betekoak.

Aitorrcn izkuntza zarrak ez dau
gizon onek ezagutu
ez daben goi be ta zirkillurik
ez gordelcku t'ezkutu.

Izkuntzak ditun erpin oianak
arkaitzak eta maminak
ibaiak eta itxaso zabatak
ezagutzen Onaindiak.

Euskeraren gun jakiturizkoa
arkaitzak baizen sendoa
itxas urdin zabalerakoa
bere barruan daroa.

Beregan maite dau Euskerea,
birau gab2ko Izkuntzea,
beregan maite dau Euskalerria
Izkuntz orren sortzailiea.

Zenbat urte, egun eta ordu eder,
maitez, opaldu deutsazuz;
zeugan loratu, zeugan mamitu
ta egi biurtu jarsuz.

Euskal kutsua artu zendun.
Zure jaioterri txiki artan
Mendi, sagasti, basetxe, oro
ziran euskal arnasadun.

Gero, barru mine z landu bear
euskeraren ederra,,
geure bizitzaren goi-arnasa
jasotzeko gaillurr^Ia.

Zenbat ardu -a tu s kal arloan,
zenbat idazle barri on
zuzpertu dituzu !eure gogoz
zure biziko zorio.zZ

Aritz zar, sendoa da Genrika'n.
Amoroto'n idazlear
Aritzak sortzen dauz ariztiak
zuk emonik arimea,

## UME, ZURTZ, GAZTE

Asier eta karmelen gogoz
Unaik argia ikusi dau,
Euskalerriko gizadi zarra,
sinismen garrez da bearu.

Siniskera bi dauz sendi onek,
Jainkoa ta Euskalerria.
Urtzi berbea dabilkio_
argitu nairik bidia.

Unaik zirrikatzen dauz biotzak,
aita ta ama bat eginik,
zoramenez ta poz irribarrez,
etxeak ez dauka minik.

Aitaren gogoa ernai dabil.
Emaztea ta semea,
bizitzako ardura gaitenak,
bigunduten arimea.

Lurra maite dau, etxeko iurra.
Argiak dei dagiotso,
bizitz ardurak ezin ditu itxi,
egiak ori diñotso.

Bizitzaren laztasuna gogor.
Geruago indartsuago,
baiña bizitz saminen ondoren
lurra maitegarriago.

Gorputzak berantz iges egin nai.
Gogoa ostera bizkor.
Au dok burrukarik gogorrena,
gizon au dabil egizkor.

Sinismena dabilko itz argitan,
iur Egiileari deiez
on ta txarraren burruka ortan
garaitzeko egi leiez.

Kurutzeak ez dau, iñoz, kikildu.
Millak zapaltze izan arreo,
Jaungoikoa eta ge rokoa
zitun lagun bi iru arren.

Beti, Zintzo. SinisrzZCna nausi.
Jakitunak esana.
Lurra gizonentzat egina da,
zuzentzaz zuzendu dana.

Gizontasunaren as iera
zuzentasuna bera eia,
kristautzak ez dau beste biderik
Kristo berak eragi nda.

Zugatz gainean egon Zakeo,
gorputuzt txiki, baiña aberats.
Zer dau barruan Kristo'n egarriz
Kristo'k dei ta itzi dau zugatz.

Gizonak marmar Jesus'en aurka.
Guztion aurrez Zakeo'k
barrua zabaidurik ari da,
orra ocre ondasunok.

Ene aberastasun erdiak
gaurtik asi eta aurrera
beartsuenrzat izango dira.
Gogo onezko autorrera.

Kristautasun zintzorik ez dago
dirukeri maitasunez;
Asier Kristo'kin bat eginik
txoratu arentasunez.

Egi ta zuzentzak indartu,
Kristo'k agindu bezela,
bearra ta beargiñak ditu
bere eginbear zabala.

Semeak aita ikusten dau zintzo,
bearrean ta otoian;
Jaungoiko ta gizona darabiz
bere begien aurrean.

Aita jako onaren iturria
ama maitasun biotza,
argiak ta egiak zabaltzen
bizitzaren arnas otsa.

Emaztea. Etxea. Semea.
Asier'en zer maiteak,
Zuzentasuna. Egia. Lana.
Bere barneko ardurak.

Egunak egazka doakioz,
beti, gizonen arduraz.
Lantegietako buru minak
gogo biziz zaindu guran.

Ordu ezéjakin itzai batean,
goizeko amar t'erdietan
burdin zakarrak jo dau lepoan,
zoritxarrez, il zoritan.

On egitea zan bere naia.
Minez ekusan gaisuak
beartsuak eta langilleak
gogorkeriz zapalduak.

II zauriak jo dautse bizia.
Burrukaren ezpaietan,
gogoz, oratu eutsori goiari
ordurik garratzenetan.

Egia zabaldu eban beti,
egia maite dau, orain,
betiko argiaren aurrean
lurreko bidearen ,gain.

Agur emazte, agur semeak,
lurra amaitzen danean,
Jaungoikoa ikusiko zeruan
beren edertasunean_

Gero, begiak itzi jakozan.
Emaztea, alargun, bakar,
Semea amabi urtez ume zurtz,
lurreko bizitzan negar.

Etxea illundu zan aita gabe.
Betiko lurrari agur.
Emaztea Jainkoaz izketan.
Erruki zakioz, bai, gaur.

Unai, seme zarrena negarrez.
Aitarik ez dauka iurrez.
Burdinak eroan zoritxarrez.
Jaunak ordainduren urrez.

Aita zintzoa zan sinismenez.
Nun zagoz, orain, Jainkoaz?
Eten bako bizia aidatu da
bat eginik zerukoaz.

Aitarik ez geiago etxean.
Ama bakarrik burua;
otoiak ba-dau, oraindik, sua
ien, aita amak piztua.

Unai'k eskola bidetik jarrai.
Lendabiziko ikaslea.
Ikaste bidetik, zintzo, darrai.
Argi aundi artzaillea.

Amazortzi urtera eldu da.
Odol garra gorantza doa.
Norbere eretxiak zuzpertuten
aizturik gainerakoak.

Aitaren oroitza makalduten,
amari gor eginagaz,
iengo bizitza maite gozoa
amak ez dauka beragaz.

Etxean iliun biur da Unai.
Bere gogoa aldatu zen.
Etxetik at biliatu nai leuke
oldozkai barrien sen.

Ama ona semearen billa
erreguzko itxaropenez,
biotza zulatuta min barriz
Unai'ren oker bearrez.

Sinismena gal-zorian dauka.
jainko izatea ezpaitan.
Barrua artega ta kezkaturik
gizonen egi larritan.

Lur utsera biurtzen ari da.
Bizitza sen gabekotan
barruaren aunditasun oro
lur gaiez betetzekotan.

Baiña maitasun, zuzen, egia,
gizonaren egarria,
lurrez bakarrik asetu
azkengabcko min irria.

Utsik daurki barru aldea.
Aitaren oroia deiez,
gizon on aren zuzentasuna
makilaren ots dirdaiez.

Kezkaz dabil zoratu bearrez.
Zergaitik saldu dot aita! ! !
Zergaitik samindu nere ama! ! !
guzurrez biak itzita...?

Zatoz barriro, Jainko Altsua.
Nere barrua utsik dago.
Txakur amesak egin nituan,
lurra ez da ederrago.

Zure antzeko sortu ninduzun...
maitasun ta jakituriz...
nere biotzak ez dau bakerik...
zatoz maitasun ixuriz.

Ama, entzun *nere* deadarra,
aitak bialdu deustana,
betiko egitik aldeterik
ez dot nai, ama laztana.

## I XILIK DOA

Eleiza. Kristo« Ta bere sailla
Kristo izatez argia da.
Ezkutuzkoa. Eza^g^un eziña.
Eta lo egon mundua.

jesus agertu zan itz egiten.
Lurra otz egon eta iltun.
Basa zikiñez ingurututa.
Biderik gabe. Baltz ta iliun.

Galdera nausienaren utsa...
Maitez, jakituriz, nor naz...
Neurea ez naz sortze eskubidez,
esan bear dot aurrenaz.

Egiz, Kristoa dizdiz ager zan.
Bere izatea argi utsa.
Eguzkia baiño argiago
goi arnasa emon deutsa.

Argi ta iilun, aurrez aurrez, dagoz.
Iilunak ez nai argirik.
Baso sasi artean naiago,
giza pizti biurturik.

Argia izatez eder bera da.
Meia, zuzena, egizko.
Guzurrezkorik ez dau onartzen,
ori ez dau zillegizko.

Argia, berez, zabalduten da.
bere baitan daun indarrez.
Onen aurka iñork ez dauka indarrik.
Lenago ilko ez-bearrez.

Argia ixilik doa berenez
edozein tokira argitzen.
Baimenik ez bear mundu zear.
Ta illunak, gogor, uxatzen.

Mendi tontorrak ta arkaitz arreak
eguzkiz ditu argitzen,
mendirik mendi dabil egitan
beti, izadia zoratzen.

Argi bizia ta indar beroa
maitez, damotsaz lurrari,
bere gogoz, beti, on egin,
bearrez dagoanari.

Argi egitera etorri, zan,
ta bizia izan dagien
oju egitzon gizadiari
neke minez Israelen.

Baiña gizonak gogor eurenaz.
Barruko gogorkeriaz,
ezelan ere argirik nai ez,
Kristoi zirika galderaz.

Erriaren indartzaille lez
zalakuntza gogorrenak
ontasuna berbera zanari
bota eutsezan gizonak.

Egia zan bere nai guztia.
Egia erriarentzat.
Gizon guztiak azke nai zitun.
Poza gizadiarentzat.

Ainbeste arrigarri eginda,
ezin ezagutu eben,
barruak illun... zergaitik ete...
mirari eder ondoren?

Azken gabeko aidiak ziran.
Kristo gizon eta Jainko.
Mirarigille agertu arren
Jainkotzat nork ikusiko?

Gizona jakituriz neurtua,
gauz andirik ez ikusten,
Barne-trumoiak doillorkeriz
egi leia zapalduten.

Gizonak ez dabe itzi nai, iñolaz,
barman daroen garra,
norberekerizko nauskeria
karrazi dabillen arra.

Epoaren antzeko izan-ta,
leoia nai dau izatea,
andi gar au izan bear ete dau
gizonen zapaitzaillea?

Moztu bearreko griñak dira,
baiña indartsuak egitan,
amorruz, basa pizti bezeia,
adarka odoi bizitzan.

Egia, baita zuzentasuna,
nunnaitik, otska, dabiltzan,
ziñez, gizon erantzupendunei
arri eta maitlu bitsaz.

Gizon guztia deitua da
egiaren argitara,
argiaren argiz urr a tzeko
zuzentza dizdizetara.

Zelaietan dabillan gizona.
miñez, dabii arduretan,
txal barriak aztea gaitz jako
leorrak il da igarretan.

Bakarrik eta laguntza gabe.
Zergalariak datorkoz.
Dirurik ezin batu iurrean,
gogorki, eske jagokoz,

Errukirik ez ankerkeriak.
Iñoz ez dau ezagutu
laguntasunik baserritarrak,
gaurkoz, bai, ondo, narrutu.

Sarritan arorik ez lurrean.
Gizajoak gorantza nai,
berantza adituten dabelarik,
etsai baitzak daukaz nonnai.

Nekepean zapalduta irudi.
Lanak ez dautso balio.
Nekeak, izerdia, ardura
aiperriko dirudio.

Egiaren egiak dei dagi
eskubide osoagaz,
ber-berak dauko aimen berezia
su biziaren garragaz.

Bere erara bialduko ditu
eguzki, aize t'euriak,
lurra, iñoz, legor legorrez gogor,
igartuta lez erraiak.

Aita da bera. Gu aren semer
Sarri estu, baita gosez,
Zergaitik ete da izurrite au
ta gizadia ain saminez?

Amai gabeko jakituria...
eskuan dauz bizi giltzakr..
itxasoa, lurra, aizea ta argi,
ta negar seme biotzak.

Aitaren maitiak ondorik ez,
biotza lertu bearrez,
semeak asko ostera, negarrez
bizitzako zoritxarrez.

Ezkutua dago, emen, otska,
Aitak bere bidea dau
semeak sortu baiño lenago...
argiz argituta berau.

Bera da argia ta zuzentza,
bera gizonen bizia,
izatez da izatearen rnuiña
ta biziaren mamia.

Norantza zoaz nckazaria?
Zer nai dozu egitea_ ..?
Argitik igestera ba'zoaz
zein da zure egibidea?

Argia sorkaidetik el atortsu,
eguzki argi zimela,
argien argi eragiilca_^
berez danak dakarrela.

# AZURRAK

Gazterik ezagutu nituan
zelai orlegiak dizdiz,
lur zabal emegarriak gorriz
Birle auzoa loradiz.

Lur zabal orretara jo neban
ederrak, sarri, deituta;
eguzki, landara ta udabarri
iru ta bat alkartuta.

Nekazaria, goiz joaten zan
eguzkiagaz bat antzean
lurreko giroa agurtutera,
atxurrez, lepo gainean.

Lanerako eguna luzea
ta itxaropena barman,
ezer bai ete da leikorragorik
baserritarren goguan?

Eguzkitik illargira dabiz
etxeko sendi guztia,
aita eta ama, seme ta aiaba,
ura bear egitia!

Udabarriko samurtasuna...
lur usaiñagaz batean,
erne-minetan egon oparo
eguzkiaren menpean.

Lurrak mamin ta gatz bizi ditu,
Eguzkia printzez gorri.
Euriak ezo gozoa dakar
iur-iandareen bizigarri.

Antxiñetako baserritarrak
bizi minaren egarriz
iur biiia ebiltzezan, arduraz
eskontza on baten gurariz.

Jendea bear baiño geiago,
solo lanak gitxiegi,
estu ebiitzezan gurasoak
buru-minez sarriegi.

Bizitza estu. Ardurak aski.
Nora ezean semeak.
Sarri urriñetara igesi,
gosez, arturik bideak.

Lantegien egarriz marmarka :
cta bizi egin bear;
ainbeste semerentzat lanik ez
gorputzak lan gabe iitzear.

Itxaron mina lan gabekoa,
nora ezean erria,
bascrrietakoak begira
nundik sortuko bizia...

Berezko dan iege txar bezela,
beti, ikusi dut bakarrik,
baserritarra iaguntza barik
arduraz urtu bearrik.

Lan eske, nunnaitik indartsuki.
Urteak igaroz gero,
lantegi bat eidu zan errira.
Izango al gara bero.

Pozez, artu zan ien-lantegia,
naiz ta izan bera txikiar
Itxaropena ekarren noski,
sendi batzuen bizia.

Aurrera joian, bai, iantegia,
ta giroa ederrago.
langilleak kementsuak ziran
t'euskal gizon jatorrago.

Orain bakea agiri da izketan
lengo trumoiaren ordez;
betoz, arin, lantegi barriak
bizitzako miñak gordezr

Bitartean soio arnariak
banan-banakoak dira,
gari, artoak, porru, kipulak
gizentsu datoz bizira.

Soioak garbi ta ederrak,
iugiñak ez dau, iñoz, isten
atxurra, bertan bera, iurrean
arantzeen alde irabazten.

Besarkada emongo neuskio
lurreko eder orreri,
maitasun onek iges baiño ien
gure iur maite oneri.

Lur maminak noz arte izango dau
bizi gar zoragarri au?
Betirako artu ete dozu
bizitzaren muin berberau?

Zeruak nai izan dagiala
lurrak eskatzen dautsuna.
Bizi indarra, zatoz lurrerantza,
eder guziko osasuna.

Ta oraindik, aurrera, doazi
bedartza arek orlegitzen,
solo zabalak gorri ianduten,
sagar zugatzak loratzenr

Bizia da baserri zarrean;
beiak gozatsu dabiltzaz
zelaietako bedar artean
jan ta jan eguzki printzaz.

Barriro be mamitu bear dau
ezkurra aritz adarrean;
artoa, garia ta aza-lorak
lur baltzaren sabelean.

Zenbat lantegi ordu ezkero...
Solo eta ibai ondoak
iantegi kabi biurtu dira,
solo itxurak aldatuak.

Tximin keia, noíz beinka, zuzen,
askotan oker doa iges;
aizea dabil «Fluor» zabaltzen
ta lur bizia galduez.

Zugatz orlegia igartuten doa.
Ortuariak erretan.
Nun da lurraren lengo osasuna...?
Bizitza il da landaretan.

Bei gazteak, etxerik etxe,
beian jausita etzanik...
azurrak utsik, karerik gabe,
izézorian «FLUOR» gaitik,

Baserritarrak, estu, ganaduz,
azur gaisoa sartuta,
okeia minez, esnea gaisoz,
tximin keiak ondatuta...

Baserritarrak ots beien gaisoz;
albaitereak ere ots.r.
lantegi jaubeak entzun nai ez
bei gaisodunen eriotz.

Ondoren, burruka latza dator.
Bedarrak edendu dira.
Baserria ta lantegia aurrez
solo zelaira begira.

Antxinetako gogo biziak,
sarri, eskatutakoak,
ez-bearrez bizi Iegerako,
gaur, etsai biurtukoak.

Ugezabak ba ekien, ziur,
iantegi arazo barri,
nundik ta zer sortu bear eban
gizonentzat kaltegarri.

Zentzunak dei egiten guztiei
eta ikasiak zalatu,
baiña gizonen diru nai garrak
egi garratzak ukatu.

«FLUOR» gogor dabil soloetan.
Izadia gaiso minez.
Aundikiak ez nai makurtzerik
Erantzupen biidurr^z ez...?

## BIDE LOITUAK

Jakituri argia nai neuke
ta maitasun gar berbera,
bizitzak dítun garraztasunak
azaltzeko mai gainera.

Sinistu ezina. Mingarria.
Gizona, berez, egarriz,
zuzentasunaren billa clabii
ta or da min nekegarriz.

Jakituria, gizontasuna,
noraiño joan zaree iges
zeuen izakera zapalduta
maltzurkerizko guzurrez...?

Argiak zergaitik ez zuzentzen
gizadiaren bideak...1
Maitasuna norantza joan da
ilten itzita semeak?

Nor da, emen, etoi saitzaillea! ! !
Egi beraren argia
aia gizon norberezalea
urdail ar-zuioz betia?

Egiak iñor ez dau salduten.
Argiak, berez, argitzen,
zuzentasunak, beti, diardu
bide loituak garbitzen.

Lur barruan zelako arrak dabiitz
mamin giarrak zulatzen...
Lugiña, nun, da atxur kaltzaiduaz?
Ta ar zarrak lurra arakatzenr

Gizadiaren ontasuna ilten.
On egarri garanean,
txarrak zergaitik naustu bear dau
egia goituz lurrean?

Guzurra naiago dau gizonak
guzurti biur dalako,
baiña guzurrak zapaiduko dau
egirik nai ez daualako.

Norberekeri ta arrokeriak
semetzar asko ditue:
zapaltzailie, lapur ta gaiztagin
ta abereetan mandue.

Esker eskuma ta aitzin gibei,
zuzena indarpean dago,
txiki t'ez-jakiñak euren eraz
aundiak askoz gelago.

Zuzengabekeriak zer dabii?
Arrokeri aundikian
almen eta zentzunak sartuta
jar nai al gaitue il zorian?

Maitasun ta onaren itxuraz
itz anker onak ba-ditu,
garraztasun uger ta edena
gaisoak baiña ilko zaitu.

Arrokeria ta aundikeria,
zeuen izatez ei zaree
zer ustel andiaren kideko,
gizona galduta, abere.

Gizadia zapaltzen zatozez...
gizonaren eder **guztia,**
ezer-eztzat artuta gtazurrez,
gizadiaren loria.

Pizti itsuak zaree adar andiz,
erokeriaren seme,
zuen utsa eta arrokeria
bai'litzaz onaren urtze.

Egin dau ala ez al dau egin?
Ez dago barri ziurrik,
gora-bera samintsu **oneetan**
ez da jo bear azurtrilk

Baiña zenbat negar gizartean
uste txarkerizkoekaz,
gizon izenak ondatu nairik
izpar zarat gaiztoekaz.

Ez zen oiako eskubiderik
ez egolako egirik,
baiña zuzengabekeri baltza
gizonak iruntsi nairik.

Legearen zaie dala otska...
ta lege bera ustelduta,
usteiaren guzurragaz nai dauz
gizonak itxi austuta.

Zenbat bizitza zapaitzen ete
norberekerizko garrez
geroz, lurrean dago odola
betirako deadarrez...

Agindu. Agindu, Baiña zeIan?
Legeak ezin utsa izan,
gizadia iausiko ez ba'da
iltzear guzur bizitzan.

Millak urteak zear jendea
ez-jakinez eta gosez,
egiz, au munduaren samiña...
eta aundi indartsuak pozez.

Bizi almen bardiñez sortuak
bizirako eskubidez,
eta gizadia zatituta
nungo gizon txarreen bidez?

Gizadi zatirik nausiena
ez-jaiñean egoan,
iñungo erri etsai azpian
iotuta bere gogoan.

Etsai zarrak etxean nagusi
erri-iantze izena arturik,
guzurrez samaraiño beteta
ondasun oro kendurik.

Erria kateipe baltzenean,
burdiñez iiten gaitue,
munduaren pekatu larri au
guri ezarri deuskue'

Biziari galde nai neuskio
ta etsai zapaltzaillei
zillegi dan ostutea ala ez
bake bizitza erriei.

Geure iurrean gengozelarik,
icxasoz etorri ziran,
armaz beteturik lapurretan
jaun ongilleak bai'liran.

Gizonak lotsa izan bear leuke
egindako lapurtzagr .,
aurrerapidearen goiilzeriz
asetu zen iñonagaz _

Baiña larria, odola izan zan.
Bakezko gizon bizi a
etxera joan eta ker- du eutsen
berezko bizi legia_

Geroz, ondoren, euskubareaz
garbitu lur aldeak,
oro eritxoen egokizko
lotsa gabeko jendeak.

Ta gizaldien gizaldietan,
atzerapide baltzean,
zer izan lei katei miñagorik
iiluna baiño bidean...

Ezin ikusi. Ezin eskatu.
Beti zapalduta azpian.
Gosea, samiña ta negarra
arantza bizitz artian.

Erantzupendunak ez dabe esan
zer egin daben lurrian,
beti azpikeriz ta goikeriz
iñor beratzen bizian.

Bai. Egiaren dirdaiak diño:
Arroak jausiko dira
ta erri apalak goratuten
egi argira begira.

## OTS, BETI, OTS.

Lan ta lan, gaur, ots dagi gizonak.
Iñoz baiño indartsuago.
Zerk ernarazi dau zarat ori
atxak baiño gogorrago...

Gizona, nora, begira zagoz...
Zerk jo zaitu barru ortan...
oñaztarria ai jabiitzu zugan
arrigarrizko buitzotan...?

Gizontasuna sortzen ai zabiitz
zarpaillu zarrak itzita
giza-seme barria sortzeko
bizi barria jarrita?

Gora lana, sortzetiko deia,
gizon guztiak artua.
Egiite berak ezarri euskun
ardurazko agindua.

Dei itzalezko ori iiiezkorra jaku.
Beti, salatuten dabil
biziaren sorrera bertatik,
lan gaberik ez, lenago

Ots gogorra da aginduarena.
Ez da gizonak sortua,
nai-ta iangiileak, gogor, ots egin
lan ta lanaren soiñua.

Umea sortu zen orduetan
biziTako eskubidez,
gar ori eban bere barruan
bizitz ontarako bidez.

Zorioneko, ziñez, izango,
ustela ostera alper zarra
barru deia entzun dauna,
ianei uko dagiona,

Ez dau bizitza eskubiderik
alperraren urdaii zarrak,
Jainko esanik ez dau egiten
lancen etsai piztikorrak.

Nork egin bear dau lan lurrean...
Zertarako naigabetu...
Zein da biziaren sen ta zera
geroak bear ba'gaitu?

Gizon taldeak euren erara
pentsamenduz ari dira,
norberarentzat pillatu nairik
nauskeria tira ta tira.

Baiña egia, nora jun zara
gizadiagandik igeska,
batzuk arroki goi aldietan
besteak, beian, narrazka.

Au egia al da gizon bidctan?
Aita baten seme izanik
euskaldun lurra negarrez dago
gaitz au sinistu ezinik.

Lana seme guztientzako da
neke ta izerdia bardin,
aloger ta lur onurea
guztientzako izan dedin.

Egilleana da sortzez iur au,
gizonena gozamena,
anaiak lan eginta bardintsu
izan bear ieuke eurena.

Baiña, semeak, iñoz ez astu,
anaiak zenbat ein eban,
aren nekeak eta izerdiak
ixuri ziran lanean.

Lana egía da, zu ere bai.
Egiak ez dau zapaltzen.
Bere erara, zintzo, jokatzen
ta iñor, iñoz, ez dau galtzen.

Otsokoa, iñoz, ez dala izango
agertu bear dau lanez,
jakituri-izerdiak emonda
danen onerako danez.

Gizonak ba-dabiltz zoritxarrez
otsokerikaz jokatzen,
anaien kontura lapurretan
sendi odola xurgatzen.

jakituri aidrebesa; kirten.
Biotz ankerra doillorki,
lanbidea zapaltzen doana
norberekeriz sapoki.

Norberekeri asetu ezin,
noiz ilko dabil anaia,
baiña txiroak au egikeran
ariotekeri nausia.

Au bai, dala indartsuaren poza,
txiro arteko saltzea,
egirik ez dagon tokietan
azeria nausitzea.

Nora begira zagoz, beartsu,
aberaskerien zaie,
gizontasuna lorrez il jatzu
norberekeri maitaie.

Zer dago anai saitzea baiño
mixeri gorriagorik,
zer diru-zalekeria baiño
uskeri ziztriñagorik...

Gizontasuna saltzen danean,
zer da gizonen barrua
illobi usteldua besterik
ats eriotan sartua.

Noiz aideko ete nauskeriak
beartsu gogoetatik,
zorri biztuak, egiz, okerrak
alderdi guztietatik.

Langiileria otska jaiki da,
anaiak saldu daunean,
pekatu gogorrenak mindu dau
diru gosezkoanean.

Bakeak beste bide bat bear.
Egi *ta* zuzentasunez
esnarazi bear dauz bideak
bizi gaizan maitasunez.

Gizonak bere duintasuna
zaindu bear dau edonun,
nora goaz nortasuna galduz
lotsa gabe jantzi baltzdun?

Aundikeriézale biurturik,
norberagaz iotsatuta,
biziaren gatz-ura joan da
langille odol gaiduta.

Zer da ederragorik munduan...
izerdizko lana baiño...
zer gizontsuagorik lurrean
egia baiño ilteraiño !

Lanaren barruko neke zorrak
ez gaitu, iñoz, zapalduten,
neke baltzaren garraztasunak
gizona dau goraruten.

Ots, beti, ots, lanaren aurrean,
bizitz indarra zail dago
gizonaren gizontasuna, or,
iñun baiño ederra o.

Esku azal gogortu 1c betoz
lan gogorren ezau LArri,
buru landu argitu a zatoz,
giz-ardureen argi arri,

Ez saltzerik eta cz izterik,
arpegia, beti, lanari,
gizon adorea jaiki bedi
ta jarrai zuzen danari.

Gizadia itxoren daukagu
jende barru zintzoari,
egi zuzena eskatu deutso
buru Leial argianr

## ORDUAN

Izadia eta gizadia
zer ta nor euren erara
otoi gogorrenetan dabiltzaz
bizi argitasunera.

Sinismenez begiratu nairik
